

ARRATIAKO AZPIEGITUREN ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA

ESKUALDEKO EKIMEN ESTRATEGIKOEN EREDUA

Helburua:

Arratia eskualdeko ekonomiaren eta industriaren garapena bultzatzeko eskualdeko azpiegituren diagnostikoa egitea, eta ekintza-plan bateratu bat ezartzea, industria-sareari lotutako azpiegituretan egin beharreko hobekuntzak adostasunez hautatzeko, prozesu parte-hartzaile baten bidez, egungo industria-sarea mantentzeko, haren hazkundea bultzatzeko eta eskualdean inbertsio berriak erakartzeko.

Azalpena:

Helburua lortzeko, ekimenak jarduera hauek garatzea barne hartzen du:

- Industria-azpiegituretako oztopoak identifikatzea, egindako azterketa alderatzea eta beharrak identifikatzea, eragile publiko eta pribatuekin saio teknikoak eginez. Azpiegituretako oztopoen (mugikortasuna, sareak, eskura dagoen industria-lurzorua eta beharrak) egungo egoerari buruzko txostena egitea.
- Egon daitezkeen gabeziak aztertzeko, industrialde bakoitzerako beharren programa bat garatuz.
- Azpiegiturek hobetzeko plana, ekonomiaren eta industriaren garapena bultzatzeko. Inbertsioak balio kualitatiboaren eta langile/fakturazio kopuruaren arabera lehenetsiko dira.
- Ondorioen azken txostena.
- Emaizak gainerako eragileekin bateratzea.

**BFaren
finantziazioa
36.316,43 €**